

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 3/2021 Zerga premiazko araugintzako dekretua, martxoaren 23koa. Onespena ematea COVID-19arekin lotutako ezohiko neurri osagarriei

Kontuan hartuta COVID-19aren pandemiak sortutako ezohiko egoerak zergapekoei zenbait zerga betebeharrak betetzeko ekar diezazkiekeen zailtasunak, gomendagarria da zerga premiazko araugintzako dekretu hau onestea, zeinak zerga arloko neurriak hartzen baititu, jarduera ekonomikoan izaten ari diren ondorio negatiboak arintzen jarraitzeko.

Hala, 2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoei edo, hala badagokio, 2021eko lehen seihilekoari dagozkien ordainketa zatikatuak ordaintzeko, edo, hala badagokio, autolikidatzeko eta ordaintzeko betebeharraren salbuespena ezartzen da.

Bi pizgarri fiskal sartzen dira: bata, jarduera ekonomikoak gauzatzeko lokalen alokairu errenta jaistearekin lotuta, eta, bestea, jarduera ekonomikoari berrekiteari lotuta, batari zein besteari bereziki eragin baitie COVID-19ak.

Bestalde, interes ekonomikoko elkarleen araudia aldatuko da eta otsailaren 2ko 1/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan atzemandako akats tekniko bat zuzenduko da. Dekretu horren xedea da Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa onestea. Zuzentzarau horrek 2016/1164 (EB) Zuzentzaraua aldatzen du, hirugarren estatuekiko asimetria hibridoak dagokienez.

Era berean, jokoaren gaineko zergari lotutako makinaren edo aparatu automatikoen ustiapenarekin lotutako aldaketa bat sartuko da, aldi baterako.

Tokiko tasei dagokienez, toki erakundeei ahalmena emango zaie COVID-19aren ondorioek kaltetutako zergapekoen aldeko hobariak onesteko.

Zerga premiazko araugintzako dekretu honetan jasotako zerga arloko neurriek presazko bide hori erabiltzea eskatzen dute, berehalako ondorioak izan ditzaten lortzeko, eta Batzar Nagusiei horren edukiaren berri emango zaie, berretsiz dezaten.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 2021eko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zatikako ordainketak

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunak, baldin eta jarduera ekonomikoak gauzatzen badituzte, ez dira behartuta egongo Arabako Foru Ogasunean honako hauei dagozkien ordainketa zatikatuak egitera edo, hala badagokio, autolikidatu eta ordaintzera: 2021eko lehen eta bigarren hiruhilekoak edo 2021eko lehen seihilekoa.

Ordainketa zatikatu horiek borondatez ordaintzen badituzte, ezin izango dute eskatu dagozkien zenbatekoaren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko, eta ez dute eskubiderik izango bidegabeko diru sarrera kontzeptua dela-eta zenbateko hori itzul dakien eskatzeko.

2. artikulua. COVID-19aren ondorioz bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoak gauzatzeko lokalen alokairuak ordaintzen laguntzeko neurriak

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta establezimendu iraunkor baten bidez jarduten badute, artikuluko honetako 4., 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako ezohiko zerga neurri pizgarriak aplikatu ahal izango dizkiete 2021. urtean sortutako hilekoei, 2020ko martxoaren 14tik aurrera borondatez hitzartutako alokairu errentaren beherapenari dagokionez.

Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da negozio alokairuetatik eta negozio lokalen eta pabiloien alokairuetatik eratorritako errentak zehazteko, bai eta jarduera ekonomikoak egiten diren etxebizitzaren alokairuetatik eratorritako errentak zehazteko ere.

2. Artikulu honetan aurreikusitako neurri pizgarriak aplikatzeko, borondatez adostutako alokairu errentaren beherapena gutxienez 3 hilabetez mantendu beharko da 2021. urtean, eta errentariak edo hirugarrenek ezingo dute alokairu errentaren beherapen hori geroago konpentsatu edo berreskuratu, ondorengo aldiak alokairu errenten igoeren, beste prestazio batzuen edo beste edozein kontraprestazioen bidez.

3. Artikulu honetan aurreikusitako neurri pizgarriak ez dira aplikatuko baldin eta pertsona edo erakunde errentariak errentatzaileekin lotura badute, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 42. artikuluko 3. apartatuan zehaztutako moduan, edo haien ezkontideak edo izatezko bikotekideak badira edo haiekin hirugarren gradura arteko zuzeneko zein alboko ahaidetasuna badute (odolkidetasuna zein ezkon ahaidetasuna edo izatezko bikote izatearen ondoriozkoa).

4. Sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunentzat, establezimendu iraunkor baten bidez jarduten badute, zerga oinarria zehazteko, zerga gastu kengarritzat hartuko da aurreko 1. eta 2. apartatuetan aipatutako alokairu errentaren beherapenaren zenbatekoa.

5. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera ondare sozietatetzat hartzen diren erakundeek aurreko 4. apartatuan aurreikusitakoa aplikatu ahal izango dute.

Ondorio horietarako, gastu hori fiskalki kengarria izango da, aipatutako Foru Arauaren 32.2 artikuluko bigarren paragrafoan aurreikusitako etekinen mugarekin eta baldintzetan.

6. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunentzat, etekin garbia zehazteko, gastu kengarritzat hartuko da aurreko 1. eta 2. apartatuetan aipatutako alokairu errentaren beherapenaren zenbatekoa.

Hala ere, alokairutik datozen etekinak kapital higiezinaren etekintzat hartzen badira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 30. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, gastu kengarriaren aplikazioa aipatutako Foru Arauaren 32. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako arauen arabera zehaztuko da.

Aipatutako 32. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitako etekinen muga aplikatzeagatik alokairu errentaren beherapenaren zenbatekoa gainditzen bada eta, ondorioz, ezin bada gastu kengarri gisa aplikatu kapital higiezinaren etekin garbia zehazteko, kuota osoan soberakin horren ehuneko 15eko kenkaria aplikatzeko eskubidea izango da.

Kuota osoa nahikoa ez izateagatik kendu ez diren zenbatekoak hurrengo urtean amaitzen den zergaldiaren aitopenean aplikatu ahal izango dira.

Aurreko paragrafoetan xedatutakoa aplikatuko da, halaber, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 37. artikuluko b) letran aipatutako negozio alokairuen etekin garbia zehazteko; kasu horretan, gastu kengarria eta etekinen muga zehazteko arauak aipatutako Foru Arauaren 39. artikuluko 2. apartatuan aurreikusitakoak izango dira.

Apartatu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatzea aukerakoa izango da, eta autolikidazioa aurkeztean egin ahal izango da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 105. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3. artikulua. Ezohiko kenkaria, COVID-19ak bereziki kaltetutako jarduera ekonomikoari berrekiten laguntzeko

1. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, baldin eta establezimendu iraunkor baten bidez jarduten badute, kuotaren kenkari bat aplikatu ahal izango dute, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldian egindako inbertsioen ehuneko 10ekoa, beren jarduera ekonomikoari berrekin edo hura berreskuratu ahal izateko edo COVID-19aren pandemiaren hedapenari aurre egiteko osasun agintariak hartutako neurrien ondoriozko baldintzetara egokitu ahal izateko.

2. Artikulu honetan ezarritako kenkaria honako zergadun hauek aplikatu ahalko dute:

a) COVID-19 gaixotasuna hedatzearen ondoriozko osasun alertak sortutako egoeraren aurrean Euskadiko Babes Zibileko Planaren esparruan (Larrialdiei Aurregiteko Bidea-Labi) osasun agintariak hartutako neurrien ondorioz edo horiek aldatzen edo ordezkatzeko dituen beste edozein araren ondorioz jarduera ekonomikoa etenda geratu zaien pertsonak. Neurri horien aktibazio formalak Segurtasun sailburuaren 2020ko abuztuaren 14ko Aginduaren bidez egin zen, lehendakariaren urriaren 26ko 36/2020 Dekretuaren bidez, zeinaren bidez osasun publikoko prebentzio neurriak hartzen baitira alarma egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapenari eusteko.

b) Jarduera ekonomikoa aurreko a) letran adierazitako egoeretan egon ez arren, COVID-19aren ondorioz jarduera nabarmen murriztu zaien pertsonak. Bi baldintza hauek betetzen direnean joko da hori gertatu dela:

i) 2020. urteari dagokion eragiketa bolumena 2019. urteko eragiketa bolumena baino ehuneko 25 txikiagoa izatea, gutxienez.

ii) 2020ko jarduera ekonomikoaren kontabilitate emaitza edo etekin garbia 2019koa baino ehuneko 50 txikiagoa izatea, gutxienez.

b) letra honetan aurreikusitako magnitudeak urtebetera igoko dira, zergaldia urte naturala baino txikiagoa bada edo jarduera ekonomikoa zergaldi horretan hasi bada.

3. Jarduera ekonomikoak jarraian zehazten diren helburuetara egokitzeko beharrezkoak diren inbertsioak dira kenkariaren oinarria osatzen dutenak:

a) Jardueraren ondasunak merkaturatzeko edo zerbitzuak emateko bide alternatiboak erabiltzea, hala nola online plataformak, streaming zerbitzuak, etxez etxeko zerbitzuak eta antzekoak.

b) Instalazioak egokitzea edukierak kontrolatzeko, erreserbak kudeatzeko edo COVID-19aren transmisioa saihesteko unean uneko prebentzio neurriak betetzen direla bermatzeko.

c) Zerbitzuak aurrez aurre edo urrutitik emateko instalazioak edo bitartekoak berritzea edo eguneratzea, zergadunak bere jarduera gauzatzeko dituen baliabideen erabilera optimizatzeko.

4. Kenkariaren oinarria aurreko apartatuan aipatutako inbertsioen zenbatekoak osatuko du, eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 67. artikulua-ren 3. apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Horrela kalkulatuak kenkariaren oinarria ezingo da izan 5.000 eurotik gorakoa.

5. Establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, kenkari hau kuota likidoaren kenkarizat hartuko da, eta, hura aplikatzeko, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 59. eta 67. artikuluetan xedatutakoa hartu beharko da kontuan. Ondorio horietarako, arau horren V. tituluaren III. kapituluaren jasotako kenkariei aplikatu beharreko arau orokorrak aplikatuko zaizkie.

6. Artikulu honetan aurreikusitako kenkaria baliatzen duten pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek honako berezitasun hauek hartu beharko dituzte kontuan:

a) Jarduera ekonomikoek sortutako etekinek zerga oinarri orokorrean osatutako zatiari dagokion zerga honen kuota osoari aplikatuko zaio kenkaria.

b) Hurrengo hogeita hamar urteetan amaitzen diren zergaldietako aitorpenetan aplikatu ahal izango dira kuota nahikorik ez izateagatik kendu ez diren kopuruak.

7. Kenkaria ezin izango dute zergadun batek baino gehiagok aplikatu inbertsio bera dela eta, eta zergadun berak ezin izango du zerga hauetan aurreikusitako kenkari bat baino gehiago aplikatu inbertsio bera dela eta.

Era berean, ez da kenkari hori aplikatuko establezimendu iraunkor baten bidez jarduten duten sozietateen gaineko zergan eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, baldin eta ekin-tzailtza sustatzeko eta produkzio jarduera indartzeko erreserba berezia gauzatzeko balio izan badu, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 53. artikuluan aipatzen den bezala.

Kenkari hori bateraezina izango da inbertsio berekin loturiko beste edozein zerga onurarekin, amortizatzeko askatasunari, amortizazio bizkortuari eta baterako amortizazioari dagokienez izan ezik.

8. Artikulu honetan araututako kenkaria autolikidazioa edo aitorpena aurkeztean baliatu behar den aukera da, bat etorritz Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 128. artikuluan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 105. artikuluan xedatutakoarekin, eta manu horietan xedatutakoa aplikatu behar da.

4. artikulua. Espainiako interes ekonomikoko taldeak

Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 73. artikuluko 1. apartatua aldatzen da; 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak, eta aurrerantzean honako testu hau izango du:

“Hala ere, bazkideek interes ekonomikoko taldeetan egiten dituzten ekarpenak ezaugarri bereziak dituzten ondare tresna gisa kalifikatu behar badira, kontabilitate irizpideen arabera, bai eta araz zehazten diren kasuetan ere, finantza gastu garbien, zerga oinarri negatiboen eta kuota kenkariaren egozpenak ezin izango du zenbateko jakin bat gaintu, kuotari dagokionez. Zenbateko hori honako hau izango da: bazkideak taldearen kapitalari egindako ekarpenen zenbatekoa 1,2 aldiz biderkatzearen emaitza. Soberakina ezingo zaie inola ere bazkideei egotzi.”

5. artikulua. Aldatzea otsailaren 2ko 1/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zeinaren xedea baita Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa onestea. Zuzentarau horrek 2016/1164 (EB) Zuzentaraua aldatzen du, hirugarren estatuekiko asimetria hibridoari dagokienez

Otsailaren 2ko 1/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua aldatzen da, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren eta zerga premiazko araugintzako dekretu hori indarrean jartzean amaitu ez diren zergaldietarako ondorioekin. Dekretu horren xedea da Europako Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa onestea, eta zuzentarau horrek 2016/1164 (EB) Zuzentaraua aldatzen du, hirugarren estatuekiko asimetriei dagokienez. Hona hemen nola aldatzen den otsailaren 2ko 1/2021 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua:

1. artikuluko zazpigarren apartatuan, honako esaldi honen orde: “34. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatu egiten dira, eta honela geratzen dira idatzita:”, honako esaldi hau jarri behar da: “35. artikulua 1. eta 2. apartatuak aldatu egiten dira, eta honela geratzen dira idatzita:”

6. artikulua. Jokoaren gaineko zerga

1. Arabako Lurralde Historikoan jokoaren gaineko zerga arautzen duen otsailaren 14ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikulua hiru apartatuan xedatutakoa gorabehera, ustiatzeko baimena lortzen den kasuetan, edo hura eten, baliogabetu edo azkentzen denean, kuota egun naturalen arabera hainbanatuko da, baimena ematen denetik edo etetea kentzen denetik baja eman, eten edo baliogabetu arte.

2. Artikulu honetan xedatutakoa aplikatuko da alta, baja, etetea, baliogabetzea edo azkentzea gertatu bada 2021eko urtarrilaren 1aren eta COVID-19aren eraginari aurre egiteko jokoaren sektoreko neurriek indarrean jarraitzeari buruzko Dekretuaren indarraldia amaitzen den egunaren artean, edo, hala badagokio, haren luzapena arautzen duten xedapenen arabera.

3. Aurreko 2. apartatuan adierazitako aldiak aurkeztu beharreko aitortuak zergapekoek beraiek egin behar dituzte, pertsonalki eta zuzenean.

7. artikulua. Tokiko tasak

2021. urtean, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren II. tituluko III. kapituluaren 3. atalaren arabera ezarritako udal tasen zenbatekoaren gaineko aparteko hobariak onetsi ahal izango dituzte toki erakundeek, COVID-19ak eragindako ondorioengatik.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan adierazitako ondorioak izango ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundiari xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA